NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA (ISIC)

Nazioarteko ikasle-txartela (ISIC - International Student Identity Card) mundu osoan dago onartuta. ISIC txartelarekin, deskontu eta zerbitzu bereziak izango dituzu garraio, ostatu, museo, antzoki, kultur gune eta **mundu osoko** leku historikoetan.

ISIC txartela unibertsitateko, irakaskuntza ertainetako (DBH, batxilergoa, LH,...) eta eskola ofizialetako **ikasleentzat** da. Txartela ateratzeko, ikasturte horretan matrikula egin izana egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.

Nazioarteko ikasle-txartelak eskola-urtea **irauten** du eta baita hurrengo urteko irailetik abendura bitarteko hilabete tartea ere (**2010eko irailaren 1etik aurrera egindako txartelak 2011ko abendura arte indarrean daude**).

Eskakizunak:

- Adina: 12 urte baino gehiago. Ez dago gehienezko adin-mugarik
- Tasa: 6 euro
- Denbora osoz ikastea ofizialki onartutako zentroetan, hau da, astean gutxienez 15 orduz aritzea.